

92. ZENBAKIDUN **ALKATETZAREN DEKRETUA**

Gaia

Behargintzako formaziorako aholkularitza zerbitzu kontratua.

Xedea

Behargintzako formaziorako aholkularitza zerbitzu kontratuaren esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2011ko urriaren 24an, Tokiko Gobernu Batzarrak Behargintzako "formaziorako aholkularitza" emateko zerbitzu kontratuaren baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Aipatutako kontratazinoa prozedura ireki bidez bideratu da, eta iragarkia 2011ko azaroaren 29an argitaratu da Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean, baita Bizkaiko aldizkari Ofizialean ere.

Hirugarrena: Kontratazio prozedura honetan, enpresa bakarrak aurkeztu dau eskaintza. Gauzak horrela, 2012ko urtarrilaren 9an, formaziorako aholkularitza zerbitzuaren kontratuaren harira, Kontratazio Mahaiak 2012-2013 urteetarako FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA ZERBITZU kontratazioan DAITEKE CAREERS & JOBS S.L. enpresaren aldeko esleipenari baiezko diktamena emateko erabakia hartu dau, aho batez.

Laugarrena: Kontratazio Mahaiaren proposamenaren ondorio legez, DAITEKE CAREERS & JOBS S.L. enpresari Errekerimendua luzatu jako, 10 egun balioduneko epean, prozedura arautzen dauan administrazio orrien 20. puntuan zehazten diran eginbeharrak betetzeko.

Argudioak

Lehenengoa: DAITEKE CAREERS & JOBS S.L. enpresak, zehaztutako epe barruan, Errekerimenduan eskatutakoak bete ditu: kautotuta edo egiaztatuta eskatutako dokumentazioa aurkeztea eta behin betiko bermea jartzea (7.500,00 €), hain zuzen.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak, arautzen dauzan urrats guztiak jarraitu dirala kontuan hartuta, 151.3 artikulua xedatutako eran, esleipena egin leike.

Erabagia

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Behargintzako formaziorako aholkularitza zerbitzua emateko kontratua DAITEKE CAREERS & JOBS S.L. enpresari esleitzea.

BIGARRENA: Kontratuaren prezioa 150.000,00 €-koa (BEZ kanpo) izango da. BEZari jagokon zenbatekoa 27.000,00 €-koa da (Danera: 177.000,00 €).

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea bost (5) laneguneko epean, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta horrela egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Bermeon, 2012ko urtarrilaren 31n
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNeko IDAZKARIA